

# Aitak eman zerautan

Piarres Ibarrart

The musical score consists of four staves of music for voice and piano. The piano part includes harmonic notation with Roman numerals and key signatures. The lyrics are provided in Basque, with some words in English, and are aligned with the corresponding musical measures.

**Sarrera:**

F B♭ C C7 F

**Ahotsa:**

F

**Ah. (Measures 6-15):**

B♭ C C7 F F B♭

8 rau - tan ze - ru - rat juai - ti - an  
pi bat, ba - dut ma-has - ti - an,  
ri - ek goiz du - te kan - ta - tzen;

E - ne - tzat ma - has - ti - a  
Sa - gar, u - da - re, phi-ko,  
Or - du - an boz - ka - ri - oz

II C C7 F F Dm Gm G7

8 har - tze - ko la - ne - an; Ar - tha ne - za - la, Ai - tak be - za - la, Hain - tzur e - ta jo -  
mer - txi - ken ar - te - an, E - tx'a - i - tzi - ne - an, Lo - ren er - di - an, Ba - ra - tze a - lho -  
la - na - ri naiz lo - tzen; Ge - ro zait has - ten Bi - ho - tza hoz - ten, A - gor - tzen zin - tzu -

16 C C7 F B♭ G C7 F

8 rra, La - gun - tzat hor nu - e - la... so - to - ko o - pho - rra.  
rra, Du - tzu - lu - a - ren pe - an... so - to - ko o - pho - rra.  
rra, Las - ter dut es - ku - ra - tzen... so - to - ko o - pho - rra.

**Ah. (Measures 21-22):**

C2 C7 F

8 so - to - ko o - pho - rra.  
so - to - ko o - pho - rra.  
so - to - ko o - pho - rra.

**Textual Content:**

Aitak eman zerautan zerurat juaitian  
Enetzat mahastia hartzeko lanean;  
Artha nezala,  
Aitak bezala,  
Haintzur eta jorra,  
Laguntzat hor nuela... sotoko ophorra.

Etxe xuri ttipi bat, badut mahastian,  
Sagar, udare, phiko, mertxiken artean,  
Etx'aitzinean,  
Loren erdian,  
Baratzet alhorra,  
Dutxuluaren pean... sotoko ophorra.

Mahastian xoriek goiz dute kantatzen;  
Orduan bozkarioz lanari naiz lotzen;  
Gero zait hasten  
Bihotza hozten,  
Agortzen zintzurra,  
Laster dut eskuratzentz... sotoko ophorra.

Ez dut hiritar gisan gosari ttikia:  
Bixkotxatto batekin edari bixia;  
Nik dut ogia  
Axal gorria,  
Bai gasna gogorra,  
Eta arno xuritik... sotoko ophorra.

Neguan ez da deusik eder mahastian.  
Aldaxketan molkoak agertu artian,  
Ikhuisiz huntan,  
Osto artean  
Larritzen pikorra,  
Nola ahantz dezaket... sotoko ophorra.

Igandetan debotki meza dut entzuten,  
Gero lagun enekin plazetan jostatzen.  
Han dut aditzen  
Nitaz erraiten:  
"Zer muthil gotorra!  
Ez ahal dik hastio... sotoko ophorra".

Gorputza baitut sano, arpegia gorri  
Hortako dute nitaz zerbait erran nahi,  
Bainan ez naiz ni  
Nihoiz ibili  
Oraino moxkorra,  
Izanagatik maite... sotoko ophorra.

Badut moltsa luza bat urhez hanpatua,  
Hal'ere ezkontzeko lotsaz gelditua,  
Beldur bainintzen  
Gerta zadien  
Andrea mokorra,  
Eta hauts ostikoka... sotoko ophorra.

Bertsu hauk egitean iphar-goxoa zen  
Sotoan hari nintzen arnoen aldatzan;  
Donado hemen  
Zein ongi naizen,  
Egin dut aithorra,  
Tente xutik aldean... sotoko ophorra.

**Textual Content (Continued):**

Ene gazte lagunak ezkondu direnak,  
Haurrez betheak dire orai gehienak;  
Balute ere  
Bertze hainbertze,  
Ez naiz jeloskorra,  
Haur hainitz bezain on dut... sotoko ophorra.

Herriko zahar batzuk, sotorat ethorriz,  
Han idukitzen naute lehertua irriz,  
Konkorrek kanta,  
Mainguek dantza,  
Oihuka elkhorra...  
Biba! zaharrak eta... sotoko ophorra.

Burlaka hasten baita artzaina menditik,  
Zaharrek errepusto mahasti gainetik:  
To, edantzak hik,  
Xirripakotik  
Gibel aldez gora,  
Guk husteko denboran... sotoko ophorra.

Ophor hori ez baitzen andrentzat egina,  
Hekier dut eskaintzen gathelutto bana;  
Hastio naute  
Erraisten dute:  
Donado zingorra!  
Xehaturen ahal zaik... sotoko ophorra.